

Bizilagun-sare horiek indartzeak eta haiei laguntzeak ziurtatuko digu elkar zaintzen dugula eta enpatia eta zaintzaren erantzunkidetasuna nahiz elkartasuna izan nahi dugun euskal gizartearen eragile direla.

Elkarrekin Podemos-IUk estatutu berrian gizarte-eskubideak eta emakumeenak blindatzearen alde egiten du, baita zerbitzu publikoak eta kalitatezko gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituen euskal zerbitzua finantzatzen dituen bidezko fiskalitate progresiboa bermatzearen alde ere. Autokonplazentzia ez da aukera bat; horregatik, neurri hauek aurkezten ditugu jendeak merezi duen neurriko Euskadi eraikitzeke.

7.1. Hezkuntza eskubide eta zerbitzu publiko gisa

Euskadik hezkuntza-politika berri bat behar du, eskola publikoaren murrizketak desagerraraziko dituen, irakasleen prestakuntza sustatuko duena eta familia eta lana bateragarri egitea sustatuko duena. Eusko Legebiltzarrerara iritsi ginenetik eskatu dugu hezkuntzan egindako murrizketak ezabatzea, 2008. urteko egoerara itzultzeko. Gaur egungo euskal hezkuntza-sistema bi abiaduratan garatzen da. Eta Euskadi irakaskuntza pribatua diruz gehien laguntzen duen Europako lurraldeetako bat izatea normaltasunez ikusteak kezkatzen gaitu.

Gure ustez, eskola-segregazioa gure eskoletako arazo garrantzitsu bat da. Desoreka horrek kalte egiten dio aukera-berdintasunari, eta hezkuntza hobea izatea norberak daukan diruaren mende dagoen eta mugikortasun soziala eragozten duen egoera batean kokatzen gaitu. Premiazkoa da euskal hezkuntza-sistemaren kohesioa handiagoa izaten lagunduko duten neurriak hartzea. Legegintzako Herri Ekimenean jasotzen denaren arabera, Eskola Inklusiboa izateko neurriak eta irakaskuntza doakoa izatearen, inklusioaren eta ekitatearen printzipioak beteko dituzten eta gure euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe batzuk eta besteak osatzen dituzten ikasleen jatorri sozialean dauden aldeak konpentsatuko dituzten neurriak.

Konfinamendua dela-eta izan diren ondorio nabarmenei hezkuntza-sailak hartutako alde bateko erabakia gehitzen zaio. Hezkuntza-sailak ikasleak ikasgeletara itzultzeko presa du, baina hartutako erabakia geldiarazi egin zuen Gobernu zentralak eta hezkuntza-komunitateak, familiek eta sindikatuek asko kritikatu zuten hori.

Eskola presentzialak eteteak eta haien ordez online prestakuntza egiteak agerian jarri zuen eten digitala dagoela, desparekotasun sozioekonomikoek eragiten dutena. Horri gehitu behar zaio desberdintasunak daudela eskolak telematikoki emateko tresnak dituzten ikastetxeen eta ez dituztenen artean. Azterketa sakonago batetik haratago, adierazi behar dugu egoera horrek agerian uzten duela azken bi legegintzako Digitalizazio Planaren porrot handia, nahiz eta irakasleek ahalegin kementsua egin duten, behar bezala aitortu ez dena, egoera berri horretarako materialak sortu eta egokitzeko.

Gainera, ikasle euskaldunak dituzten baina euskaraz hizkuntza-gaitasunik ez duten gurasoak dituzten familietan hizkuntza-arrakala sortzen ari da, eta hori eten egin behar da hezkuntza-curriculumak behar bezala garatzen dela bermatzeko.

Orain, gertatu dena ebaluatu behar dugu eta plan bat egin behar dugu hezkuntza-komunitate osoaren partaidetzarekin, deskonfinamenduari eta “normaltasun berriari” heltzeko 2020-2021 ikasturteari begira. Egon litezkeen egoera guztiak aurreikusiko dituen eta euskal hezkuntza-sistemari behar diren baliabideak eta langileak emango dizkion plana, euskal herritarren hezkuntzarako eskubidea eta kontziliaziorako eskubidea ere bermatzeko.

Jaurlaritzak ahaleginak egin behar ditu eskolatzeko ardatz nagusia izango den sare publikoaren plangintzaren, sustapenaren eta hedapenaren alde egiteko behar den inbertsioa gauzatzeko eta baliabideak emateko. Eskola publikoak, doakoak, inklusiboak, laikoak, partehartzaileak eta demokratikoak bermatu behar ditu ekitatea eta kalitatezko hezkuntzarako eskubidea.

Euskadik “Hezkuntzaren aldeko Akordio Sozial eta Politikoak” lortzen saiatu behar du. Helburu erkide gisa integratzailea, inklusiboa, guztiona eta guztiontzat izango den hezkuntzari buruzko lege berri bat eta inbertsio-konpromiso bermatua izango dituen akordio bat. Ildo horretan, neurri hauek proposatzen ditugu:

7.1.1. Hezkuntzarako eskubidea eta haren finantziakzioa

343. Hezkuntza publikoa euskal hezkuntza-sistemaren ardatz nagusia izango dela bermatuko dugu. Horretarako **titulartasun eta kudeaketa publikoa duten ikastetxeen sarea zabaldu** behar da, hezkuntzako etapa eta modalitate guztietan eskolatzeko beharrezko guztiak estaltzeko. Arreta berezia eskainiko zaio hezkuntza goiztiarrari, **0 eta 3 urte bitartean behar adina plaza publiko sortuz.**

344. Hezkuntza komunitatearekin elkarrizketa soziala berreskuratuko dugu ikasturte akademikoa normaltasun berrira egokitzeke partaidetza-plan bat garatzeko.

345. Hezkuntza publikoaren finantziakzioa legeen bidez blindatuko dugu, azken 10 urteotan hezkuntzak jasan dituen murrizketak ezabatzeke, eta pixkanaka aurrekontuko partida handituko dugu BPGaren % 7ra heldu arte, UNESCOk gomendatzen duen eran, eta igoera hori 0 eta 2 urteetako eskaintza hobetzerara eta sare publikoko baliabideak hobetzerara bideratuko dugu, bereziki, beharra duten inguruneetako ikastetxeen baliabideak hobetzerara.

346. Irakaskuntza publikoaren erabateko doakotasuna bermatuko dugu, lehen haurtzarotik unibertsitateraino, hura behar adina baliabiderek hornituz; material didaktikoak, liburuak, jangela-zerbitzua eta eskola-garraioa barne, baita beharra duten ikasleentzako ikasle-egoitzen bekak edo soldata-bekak ere.

347. 0-3 urte bitarteko eskaintza publikoaren doakotasuna ezarriko dugu, plantillak indartuko ditugu, eta haur eskoletan plaza gehiago sortuko ditugu eskualde bakoitzeko eskariaren eta familien kontziliazio behararen arabera, guraso bakarreko familiengan arreta berezia jarritz, eta horien kostua % 25 jaitsiko dugu 2020an eta % 35 2021ean.

348. Txoke-plan bat abiaraziko dugu konfinamendu sozialaren eraginak sortutako (arrakala digitala, hizkuntza-arrakala) **hezkuntzako desperekotasunak** lehengoratzeko. Era berean, plan hori gauzatzeko eta, besteak beste, laguntza psikosozialaren neurriak txertatzeko behar adina irakasle eta laguntza-langile daudela bermatu behar da.

349. Eskola publikoen alorrean, **eraikinen eta eraikinen hobekuntzen plan bat** diseinatuko dugu. Ikasleen beharrianetara egokitutako hezkuntza-espazioak. **Ikastetxeak eta beren azpiegiturak osasun-larrialdi egoerara egokituko ditugu.** Horretarako, plantillak egonkortzeko plan bat osatuko dugu. Ikasle guztientzako baliabide informatikoen eta Internet-en hornikuntza zabalduko dugu, telelan-protokoloak eta sistemak sortuz eta ikasle, irakasle eta gainerako laguntza-zerbitzu guztientzako beharrezko segurtasun-neurriak bermatuz.

350. Modu okerrean “borondatezko kuotak” deitzen zaien horien kobrantza etengo dugu, eta itunak ezartzeko legeak eskatzen dituen gainerako baldintzak bermatuko ditugu. Hezkuntza-itunak aniztasuna onartzeko gutxieneko konpromiso batzuekin lotuko ditugu.

351. Irakasteagatik kuotak kobratzeko jardunbide irekiak edo estaliak errotik kenduko ditugu, eta dagokion finantza-gardentasuna bermatuko dugu hezkuntzan. Diruz lagundutako ikastetxe pribatuak jarduera edo zerbitzu osagarri gisa egiten dituzten kobrantzak onartzeko prozedurak gutxienez urtean behin EHAAAn argitaratuko direla (onartutako kopuruak eta horien kontzeptuak) bermatuko dugu.

352. Pixkanaka hezkuntza-itunak ezabatzen hasiko gara, itunpeko ikastetxe pribatuak ikastetxe publikoen sare bakar batean integratuz (euren borondatez eta negoziatuta), eta horien irakasleak integratzeko eta homologatzeko neurriak hartuz. Sexuagatiko bereizkeria sustatzen duten edo euren ikasleak arrazoi ekonomiko, ideologiko edo beste ezaugarri kultural edo pertsonal batzuetan oinarrituz hautatzeko ezkutuko mekanismoak erabiltzen dituzten ikastetxeen itunak berehala kenduko ditugu. Ez dugu gela berririk itunduko dagoeneko eskariari erantzuteko behar adina plaza publiko dauden eremuetan.

353. Euskal Hezkuntza Sistemaren eskola-segregazioa badagoela aitortuko dugu, askotariko faktoreez osatutako egoerak direla eta. **Eskola-segregazioaren aurkako ituna** hedatuko dugu, eremu kalteberenetako eskolei babes handiagoa eskainiz eta aniztasuna kudeatzeko plan-sorta bat indartuz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza sendotuz, jangelako bekak eskainiz, eta abar. Hezkuntzaren Euskal Itun berri bat sustatuko dugu, eskola inklusiboaren dekretua erabat garatuko duena. Onarpena, hezkuntza-itunak eta helbideak arautzen dituzten dekretuak aldatuko ditugu.

354. ISEI-IVEIren laguntzarekin **“inklusionerako eskola-beharraren indizea” definitu eta garatuko dugu,** funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztiak euskal irakasleen aniztasuna euren gain hartzera derrigortuko dituen.

355. Hezkuntza sistema publiko euskaldun baten aldeko apustua egingo dugu, euskara komunikazio-hizkuntza izango den eredu bat lortzeko urratsak egingo dituen, eta gizartearen osotasunean gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeko eragile

garrantzitsua izango dena.

356. Egungo hizkuntza-ereduen esparrua gainditu eta hiru hizkuntzako eredu baterantz abiatuko gara, ikastetxe bakoitzeko heziketa-proiektu linguistikoan oinarrituta, denek gutxieneko batzuk izanik, eta euskara ardatz gisa hartuz, irakasleentzat ingeleseko IRALE bat sustatuz, progresiboki ingeleseko klaseak emateko gai izango diren irakasleak % 35eko kuotara heldu daitezten.

357. Irakasleen eta hezkuntzako gainerako profesionalen plantillak handituko ditugu talde eta irakasle bakoitzeko dauden ikasle kopuruak murrizteko, eta ikasleen beharrian desberdinei erantzun ahal izateko. Irakasle/ikasle edota irakasle/talde ratioak optimizatuko ditugu ikaskuntza prozesuan kalitate eta ekitate handiagoa bermatzeko, batik bat irakaskuntza berezietan edo konpetentzietan oinarritutako irakaskuntzan.

358. Hezkuntza komunitatearekin adostuta, **plan digital global** bat garatuko dugu, euskal **gela publikoen erabateko digitalizazio-prozesurako ibilbide-orri argi bat** ezarriko duena.

359. Eskola-jantokien eredu aldatzeko jardungo dugu, horien esleipen, gardentasun eta kontrolean hobekuntzak txertatuz. Ondorioz, beharrezkoa da kudeaketa berritzaile eta deszentralizatu baten aldeko apustua egiten duten ikastetxe horientzat aukera bideragarriak ahalbidetuko dituen sistema osagarri baten oinarriak zehaztea.

360. Hezkuntza-komunitate osoarekin batera, informazio-prozesu bat abiaraziz hasiko gara, **eskola-jantokien zerbitzuak kontratatze baldintza-agirien oinarri tekniko berriak egiaztatze**ko, kudeaketa zuzeneko zerbitzuaren esleipen-irizpideek ahalik eta babes handiena izan dezaten.

361. Hezkuntza komunitatearekin batera, **eskola-jantokiak modu deszentralizatuan kudeatzeko eredu desberdinen analisia** burutuko dugu, euren bideragarritasun tekniko, juridiko eta administratiboaren ikuspegitik, era horretan, zerbitzu publikoaren izaera mantenduz, ikastetxeek eurek kudeatzeko aukera edo tokiko erakundeekin lankidetzan jarduteko aukera izan dezaten.

362. Hala **eskatzen duten ikastetxeetan sukaldeak eraikitze**ko aukera bermatuko dugu, ikastetxe horiek zer jantoki-zerbitzu mota izan nahi duten aukeratu ahal izan dezaten.

363. 18 urterainoko hezkuntza orokortzearen alde jardungo dugu, 16 urteetatik hasita ibilbide eta modalitate ugari eskainiz, non lanera bideratutako aukera bat aurreikusiko den, ikasketak eta ordaindutako praktikak izango dituen.

364. Erakunde publikoa den heinean, eskolak **ezinbestean izaera laikoa izatea bermatuko dugu** eta, beraz, ikur erlijiosorik gabeko espazio bat izango da, eduki konfesionalik gabeko hezkuntza-curriculuma izango duena.

365. Udalerri-mailan izena emateko bulego bakarraren ezarpena sustatuko dugu, familiei informazioa emango diena eta ikasleen hautaketa-prozesu informalak saihestuko

dituena.

366. Hezkuntzaren organigraman hezkuntza mota guztiak txertatuko ditugu:

0-6 urteen bitartekoa, LH, DBH, heziketa profesionala, unibertsitatea, helduentzako hezkuntza, kontserbatorioak, musika- eta dantza-eskolak, hizkuntza-eskola ofizialak, euskaltegi publikoak, akademiak, ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerak, udalekuak, kanpalekuak, aisialdiko denetariko taldeak, eta abar.

367. Eskolaz kanpoko programak indartuko ditugu orokorrean, horien artean

BIDELAGUNA (lehen PROA), gai guztietan eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzua eskaintzeko, batik bat euskarari eta ingelesean eta zailtasun akademiko handienak dituzten eta ingurune sozioekonomiko kaltetuenetakoak diren ikasleak lehenetsiz. Hezkuntza Sailak kendutako ACEX programak berreskuratuko ditugu.

368. Gelak ingurunera zabaltzea, familien arteko hartu-emana eta komunitate

osoarentzako hezkuntza-trebakuntza sustatuko ditugu.

369. Ikastetxeei autonomia eta malgutasun handiagoa izatea ahalbidetuko dien

baliabideak eta tresnak emango dizkiegu, adibidez: **Eskola-kontseiluen protagonismoa indartzea** eta, oro har, eskola-komunitateak sendotzea, egungo Eskola Kontseiluei buruzko Legea (1988) berrituko duen partaidetza-lege bat garatuz.

370. Hezkuntzako esku-hartzearen esparrua hezkidetzara izango dela bermatuko

dugu, curriculumeko edukiak, balio-sistema eta ezkutuko curriculumak zeharkatuko dituen, gizarte zuzen, solidario, inklusibo eta erantzunkide baterantz aurrerapausoak emateko.

371. Hezkuntza publikoaren arazoak eta lorpenak diagnostikatzeko eta horien

etengabeko jarraipena egiteko plan bat osatuko dugu, hezkuntza komunitateko sektore guztiekin batera hobekuntza berriei ekiteko. Ikasleen errendimenduari buruzko kanpo-ebaluazioak ez dira inondik inora ere ikastetxeen arteko lehiakortasuna sustatzeko erabiliko.

372. Ibilbide artistikoak berreskuratuko ditugu, bai musikaren eta dantzaren

kasuan bai arte plastikoaren edota ikus-entzunezkoen kasuan ere, nahi duten ikasleek ikastetxe espezializatuetan trebakuntza artistikoa jaso ahal izan dezaten eta ikasketak horiek LH, DBH eta Batxilergoarekin uztartu ahal izan ditzaten (LOMCE legearen aurretik egiten zen eran).

373. Hezkidetzara eta sexu-heziketa hezkuntza-sistemako zeharkako elementu

gisa sustatuko ditugu, eta plan-sektorialen eredu atzean utziko da. SKOLAE edota era horretako programa bat erreferentzia gisa hartuta, Euskadin halako programa bat abiarazi beharko litzateke.

374. Egungo Eskola-mapa birdiseinatuko dugu berau errealitate berrira egokitze

hezkuntza-erresoluzioa antolatze hezkuntza publikoan ez dadin matrikula-erresoluzioa bakar bat ere artatu gabe geratu, zerotik hasita batxilergorainoko ikasketak eta heziketa zikloak eskaintzen dituzten eskola-eremuak berrantolatze, Hasierako Lanbide-

Prestakuntzarako Programen/Eskolatze Osagarriko Programen eskaintza zabaltzeko eta irakaskuntza publikoa hezkuntza-sistemaren ardatz bihurtzeko.

375. Haur Hezkuntzako etapak bere heziketa ibilbide propioa izatea bermatuko dugu, haur-eskoletan matrikulatutako 0-3 urte bitarteko haur guztiek zentro publikoetan matrikulatzeko aukera dutela ziurtatzeko.

7.1.2. Mejoras para el profesorado

376. Irakasleen lan-baldintzak arautzeko sindikatuekin adostutako akordioak beteko ditugu, eta negoziazio-mahaiak mantenduko ditugu horiek etengabe hobetzen joateko. Beharrezkoa da irakasleen lanari prestigioa emango dion negoziazio eta akordio etapa berri bat abiaraztea.

377. Irakasleek eta hezkuntzako gainerako profesionalek **funtzio publikoan sartzeko baldintzen esparruan** sindikatuekin adostutako araudia beteko dugu, betiere sarrera-probak eta esperientzia, merezimendu profesionalak eta akademikoak aintzat hartuz.

378. Ikastetxeetako plantillei egonkortasuna emango diegu eta lan-politsetan bitarteko langileen esperientzia aintzatetsiko dugu. Irakasleen lan-baldintzak hobetuko ditugu behin-behinekotasuna murriztuz, behin-behineko langileak gehienez plantillaren % 8 izan daitezen.

379. Irakaslearen estatutu berri bat osatuko dugu sindikatu etako eragileekin batera.

380. Hasierako eta etengabeko trebakuntza eskainiko diegu maila guztietako irakasleei, teoria eta praktika uztartuz, irakasle gisa dagozkien etapa eta espezialitateetan **gaikuntza optimoa bermatzeko.**

381. Ikastetxeen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloak hobetuko ditugu ikasleen jarraipen optimoa burutzeko, haien eskubideak babesteko eta babesgabetasun-kasuetan modu azkar eta eraginkorragoan jarduteko.

382. Berritzeguneetako baliabideak hobetuko ditugu eta langile gehiago ezarriko ditugu ikastetxeen beharrei ahal den modu egokienean erantzuteko eta horien eta hezkuntza-premiak dituzten ikasleen jarraipen hobe bat egin ahal izateko.

383. Aniztasunari erantzuteko baliabideak handituko ditugu bai jatorrizko ikastetxearentzat bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, hezkuntza-etapa osoan zehar. Gure sistemak badauka ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza inklusibo eta egokitu bat bermatzeko gaitasuna.

384. 2012. urtetik aurrera irakasle ez-unibertsitarioen **borondatezko erretiroei aplikatuko zaizkien murrizketak ezabatzeko** mekanismo bat onartuko dugu.

385. 13/2010 Errege Lege Dekretuaren 20. artikulua indarrean hasi aurretik gizarte-segurantzaren erregimenean sartuta edo klase pasiboena ez zen beste aurreikuspen baten barruan geratu ziren Euskadiko irakasleen kidegoko funtzionarioek, borondatezko erretiroa eskatzeko unean, klase pasiboen erregimenera sartzeko aukera ezartzeko beharrezko mekanismoa onartuko dugu, erregimen horretan dauden irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioen baldintza berberetan, betiere horretarako indarrean dauden betekizun berdinak betezen dituztela egiaztatzen badute.

386. Bizitza osoko hezkuntzaren balioa azpimarratuko dugu. **Helduen hezkuntzako (HHE) ikastetxeak indartuko ditugu** eta horien helburu, funtzio, hartzaile eta baliabideak jasoko dituen plan integral bat diseinatuko dugu partaidetzan oinarrituta.

7.1.3. Autonomia eta Parte-hartzea

387. **Ikastetxeen autonomia pedagogikoa handituko dugu euren irakasgaiak antolatzeari dagokionez, euren ikasle eta ingurunearen beharrei doitutako heziketa eskaini ahal izan dezaten.** Inola ere ez da ikasleak hautatzeko edo bereizteko erabiliko, ezta ikastetxeen arteko lehiakortasuna sustatzeko ere.

388. **Ikastetxeak eta eskola-barrutiak antolatzeko eta kudeatzeko unean, hezkuntza komunitateko sektore guztien parte-hartze demokratikoa sustatuko dugu. Klaustroek eta eskola-kontseiluek, ikastetxeetako gobernu-organoak diren heinean, erabakitze erabateko gaitasuna izango dute euren eskumeneko gaitan.**

389. **Eskola Irekien eredia** defendatuko dugu hirien, herrien, auzoen eta heziketa-inguruneen esparruan; ikasleen parte-hartzea sustatuko dugu euren ikastetxeko hezkuntza-dinamikan eta euren hiri, herri edo auzoaren itxuran; eta herritarren inplikazioa bilatuko dugu euren hezkuntza publikoaren funtzionamendu eta hobekuntzan. Hala, hiria eta haren ingurunea benetako hezkuntza-baliabideak izango dira.

390. Hezkuntza Sailak **Euskadiko ikastetxeen ordutegiak arrazionalizatzeko** zabaldu asmo duen hausnarketa prozesua eta gaikuntza sustatuko dugu, betiere ikastetxe bakoitzean erreferendum lotesle baten bidez irakasleen eta ikasleen gurasoen gehiengo kalifikatuaren adostasuna dagoela bermatuz. Eredu hori ikastetxeek edo guraso-elkarteek eskainitako jangela zerbitzuak edo eskolaz kanpoko jarduerak gutxietsi gabe abiaraziko da.

391. **“Hezkuntzaren aldeko akordioa. Akordiorako Oinarriak” oinarri-dokumentua osatzeko planteatutako prozesua berrabiarazi eta birdiseinatuko dugu, hezkuntza komunitatearen eta oro har euskal herritarren benetako parte-hartzearekin.** Hau da, hezkuntza-jarduerako eragile nagusiekin batera erabakiko da zer den eztabaidatu beharrekoa (edukiak) eta zer metodologia eta lan-egutegi (prozesu) jarraituko den.

392. Hezkuntza komunitatearen eta legebiltzar-taldearen parte-hartzearekin batera, **Euskadiko hezkuntzaren diagnostiko sakon, zabal eta adostu bat abiarazi eta garatuko dugu,** Euskadiko hezkuntzaren alorrean itun sozial eta politiko batera heltzeko ezinbesteko lehenengo puntu gisa.

7.1.4. Unibertsitatea eta ikerketa

Ezagutzaren sorkuntza eta transmisioa funtsezko gai bat da gizarte baten hazkunde ekonomiko eta garapen politiko eta sozialarentzat. Horregatik, Elkarrekin Podemos-IUn ikasleak, irakasleak eta ikerlariak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (AZL) jarri nahi ditugu unibertsitate- eta zientzia-politiken erdigunean, eta euskal unibertsitate publikoa indartzeko eta hobetzeko konpromiso irmoa dugula adierazi nahi dugu.

Guztiok ordaindu ditzakegun unibertsitate-tasak aldarrikatzen ditugu, horretarako tasak murriztuz eta Eusko Jaurlaritzaren beka gehiago eskainiz, inor ez dadin arrazoi sozioekonomikoengatik baztertuta geratu. Irakasle eta ikerlarien eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZL) prekarietatea desagerraraztea eta euskal unibertsitateetako ikerlariak gidatutako proiektuei lehentasuna ematea ezinbestekoa dela uste dugu.

393. Unibertsitateko komunitate osoan eztabaida bat zabalduko dugu **gizartearen zerbitzura dagoen unibertsitate publiko partekatu baten alternatiba bat adosteko**, eta ez merkatuaren interesen zerbitzura dagoena, "Bologna Plana" delakoa onartu zenetik inposatu den eran.

394. Osasun-larrialdiei aurre egiteko borroka- eta prebentzio-egoeretan unibertsitateak daukan garrantzia ikusirik, 2020rako onartutako **UPV/EHUren aurrekontua blindatzea** bultzatuko dugu, bai ohiko gastuei dagokienez bai inbertsio berriei dagokienez, esaterako, Medikuntza Fakultate berria. Doktoratu aurrekoen eta irakasle eta ikerlarien soldata-igoera bermatuko dugu. 2021tik aurrera azpiegiturak mantentzeko inbertsioetarako 1.500.000 euroko urteko partida bat onartuko dugu.

395. **UNEDi bideratutako partidak blindatzea.**

396. Gure helburua **unibertsitate-ikasketen doakotasuna da, bitartean gutxieneko tasak finkatuz eta soldata-beken sistema orokortu bat ezarriz**, ekonomikoki babes gutxi duten sektoreen sarbidea bermatzeko. Unibertsitate publikoek behar adinako finantziazio publikoa dutela bermatzeko, gutxienez BPGaren % 2 bideratu beharko litzaieke.

397. **UPV/EHU euskal unibertsitate sistemaren egiturazko erreferente gisa indartuko dugu**, bere trebakuntza eta ikerketa gaitasuna garatzea eta nazioarteko rankingean bere bikaintasun maila hobetzea ahalbidetuko dioten baliabideak eta bitartekoak izango dituela ziurtatuz. Legebiltzarrean UPV/EHUren ahalmena garatzea defendatuko dugu, atzerriko unibertsitate pribatuak erakartzean datzan egungo ereduaren alboan.

398. **UPV/EHUri egiten zaion ohiko ekarpena handituko dugu**, eta era berean horrek zera bermatu beharko du:

- Nahi gabeko alderdikeriaren amaiera.
- Irakasleen prekaritatearen amaiera.

- Irakasle eta ikerlarien lan-baldintzak betetzea.
- AZL kopuruak handitzea, ratio onargarri batzuetara hurbiltzeko.
- Irisgarritasun, jasangarritasun, baliabide tekniko eta baliabide akademikoei dagokienez UPV/EHUren azpiegiturak hobetzea.
- UPV/EHU beraren sareko trebakuntza sendotzea.

399. UNEDek Euskadin dituen ikastetxe elkartuekiko lankidetzak indartuko dugu, unibertsitate publikoan ikasten duten ikasleek kalitatezko irakaskuntza jasoko dutela bermatzeko beharrezko baliabide eta aurrekontuarekin.

400. Garapen jasangarria sustatzen duten ikerketa-eredu alternatiboak bultzatuko ditugu eta baliabideak eta finantziarioak hornituko dizkiegu. **Funts publikoekin finantzatutako ikerketa guztien emaitzek izaera publikoa izango dutela bermatuko dugu.** Legealdi honetan, ikerketara eta unibertsitateetara bideratzen den BPGren % 0,49 hori gairatu beharko litzateke, EBk gomendatutako % 3ra hurbilduz.

401. Kalitatezko ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+b) proiektuak sustatuko ditugu Euskadin, eta horrexegatik **guztiontzako unibertsitatea defendatzen dugu,** euskal unibertsitateetako **irakasle eta ikertzaileak eta AZLak behar bezala artatuko dituen.** Ezagutzaren sorkuntza eta transmisioa funtsezko gai bat da gizarte baten hazkunde ekonomiko eta garapen politiko eta sozialarentzat.

402. Euskal unibertsitateetako ikerlariak gidatutako ikerketa-proiektuen finantziarioak bultzatuko dugu, zenbait alderditan arreta berezia ezarri, esate baterako, taldeen nazioartekotzean, unibertsitatearen eta enpresen arteko lankidetzan, eta kalitatezko ikerketa bat burutzeko beharrezko giza-baliabideen eta materialen jasangarritasunean. Ikerketa-proiektu horiek bikaintasun-taldeei ez ezik, ikerketa estrategikoaren lerro berriak zabaldu ditzaketen ikerlari gazteei bideratuta daude.

403. Ikerketan murgiltzeko euskal programa bat diseinatuko eta abiaraziko dugu, zaletasun zientifikoaren sustatuko duena eta ikasle gazteak ibilbide zientifiko batean murgiltzea sustatuko duena, ikasketetako azkeneko urteetan emaitza onak izan dituzten gradu ikasleei bideratuta, ikerketa lana ezagutzen eta garatzen has daitezten.

404. Lankidetzak-hitzarmenak ezarriko ditugu bikaintasunezko ikerketa-zentroekin eta ikastetxe bakoitzeko langileekin, eta parekotasun- eta genero-berdintasuneko irizpide espezifikoak txertatuko ditugu emakumeak ikerketaren ibilbidean are gehiago integratzea sustatzeko. Era berean, dagoeneko abian diren edo xede berarekin unibertsitate aurreko irakaskuntzan proposatuko ditugun beste programa batzuekin koordinatuko da programa hau.

405. Merezimenduan oinarritutako ikerketa-ibilbidea birdefinitzeko lan egingo dugu, epe luzera lanean aurrera egiteko aukera eskainiko duena. **Unibertsitatearentzat eta ikerketa-erakunde publikoentzat ibilbide akademiko bakarra sortzea** beharrezkoa dela uste dugu, horretarako kontratazio, ebaluazio eta merezimendu akademikoaren prozedurak bateratuz. Ildo beretik, laborategietako jarduerak eta I+G+b-ren kudeaketa landuko dituen ibilbide profesional bat sortuko dugu.

406. Ikerketa ibilbidearen diseinuari lotutako soldata-eskala berraztertuko dugu, etapa bakoitzeko erantzukizunei eta neurri europarrari egokitzeko, eta egungo genero-desparekotasuna arintzeko neurriak txertatuko ditugu, ikerketaren ibilbideko etapa guztietan modu progresiboan hazten baita desparekotasun hori, beste zenbait alorretan bezala.

407. Ikerketa-erakundeen eta unibertsitateen sarbide eta kudeaketako gardentasuna defendatzeko behatoki bat sortuko dugu, gardentasun-eza desagerrarazteko, ikerketa-erakundeetako eta unibertsitateetako hautaketa- eta sarbide-prozesuetan bereziki. Halaber, erakunde horien informazio estatistikoa eta ekonomikoa eskainiko die herritarrei, bere funtzionamenduaren kalitatea ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazle-multzotako bat ezarriz.

408. Irakasle eta ikertzaileen eta AZLen prekaritatea etengo dugu. Irakasle eta ikertzaileek eta AZLk galdutakoa 2012tik aurrera berreskuratzeko birjarpen-tasa berehala eta baldintzarik gabe handituko dugu. Irakasleen kontratuen % 38 iraupen mugatukoak dira. Ondorioz, prekaritate-indizeak murrizteko eta aldi baterako lan-kontratuak lanaldi osoko eta iraupen mugagabeko lan-kontratu bihurtzeko plan bat landuko dugu.

409. Irakasle eta ikerlari iraunkorren eta % 100eko birjarpena duten hirurogei urte baino gehiagoko funtzionarioen **borondatezko erretiro partziala sustatuko dugu,** metatutako esperientzia galdu gabe plantilla gaztetzeko esfortzuak egin ahalko direlarik.

410. Baliabide ekonomiko gehiago bideratuko ditugu ikasketetara, Eusko Jaurlaritzak graduako, masterreko eta doktoretzako ikasleei ematen dizkien bekak eta irakasle eta ikertzaileen eta AZLen trebakuntza egungo parametroetara doitu, eta plan bat ezarriko dugu masterreko kurtsoetako matrikularen prezioa murrizteko, graduako ikasketekin berdindu arte.

411. Hirueletasunaren alde jardungo dugu eta unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileen eta AZLen euskalduntzea sustatuko dugu, euskaraz eta gaztelaniaz gradu gehiago eskaini ahal ditzaten, eta ingelesez ematen den eskaintza handitzeko, nazioarteko ikasle-truke programetako ikasleak erakarri asmoz. Euskararen hizkuntza-eskakizuna duten irakasle eta ikerlarien ratioak % 50era heltzen ez diren sailetan, hizkuntza-eskakizuna betetzen dutenen kontratazioa sustatuko dugu, eta baliabideak handituko ditugu bertako irakasle eta ikerlariak eta AZLek hizkuntza-eskakizuna lortu dezaten.

412. Genero-desparekotasuna zuzentzeko neurriak proposatuko ditugu. Graduak hautatzerakoan eta ikerketaren esparruan, emakumeak gutxiengoa dira alor teknologikoetan, eta osasungintzaren eta zaintzen alorra hautatu ohi dute; hori dela eta, parekotasuna sustatuko dugu diskriminazio positiboko neurrien bidez, gutxienez euren langileen % 50 emakumeak ez diren sailetan bereziki.

413. Sareko irakaskuntzaren sustapena ardatz estrategiko gisa txertatuko dugu. Unibertsitateek rol aktiboa izan beharko dute sareko irakasleak trebatzen eta kalitatezko edukiak sortzen. Gainera, sareko ikaskuntzak abantaila garrantzitsuak ditu euskarazko goi-mailako ikasketak sustatzeko garaian, minorizazio linguistikoaren edo dispersio

geografikoaren arazoei aurre egiteko konponbideak ematen baititu, Kataluniako Unibertsitate Irekiaren esperientziak frogatu duen eran. Eredu hori jarraituko duen euskal unibertsitate publiko baten bideragarritasuna aztertuko dugu.

414. Ikerlari seniorren aldeko apustua egingo dugu eta **Eusko Jaurlaritzaren mende dauden doktoratu osteko deialdi guztiak areagotuko ditugu**, ikerlarien kontratazio mugagabea eta ebaluagarria sustatuko dugu, zentro hartzaileen zerrenda ikerketa-erakunde publikoek haratago zabalduko dugu —unibertsitateak eta bikaintasunezko beste zenbait erakunde publiko txertatuz—, eransketa horiek ebaluatzeko eredu bat zehaztu eta ezarriko dugu, horien ikerketen zabalkundea eta eragina hobetuko dugu eta, ildo horretatik, ikerketa-taldean nazioartekotzea ere bultzatuko dugu.

415. **Kultura zientifikorako sarbidea bermatuko dugu, egoera pertsonala, ekonomikoa edo autonomia funtzionala dena delakoa izanda ere; horretarako, ikerketa-zentro, museo, azoka eta gainerako ekitaldi zientifikoek dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako sarbide-planak badituztela ziurtatuko dugu**, ikerketa-zentro eta unibertsitateetan adin guztietako herritarrentzako ate irekien jardunaldiak sustatuz, komunikabide publikoek eduki zehatzak eta egokiak eskaintzen dituztela egiaztatuz eta, horren bidez, gizartearen eta komunitate zientifikoaren artean lotura sendo bat ezarri. Horrez gain, zientzia jendarteratzeko eta eztabaidatzeko espazioak sortuko ditugu, ikusleen adin-talde desberdinetara egokituta.

416. Politika zientifikoa eta berrikuntza lehentasunezkoak direla uste dugu; ondorioz, **zientziaren eta berrikuntzaren aldeko itun bat sustatuko dugu**, eragile eta gizarte-eragile guztiekin adostasun handi bat bilatuz, erantzukizunak hartzeko eta etorkizuneko hobekuntzak modu koordinatu, adostu eta aldaketa politikoekiko modu askean proposatzeko. Itun horren ezarpenaren testuinguruan, Zientziaren eta Berrikuntzaren Mahai bat sortuko da. Enpresekin konpromiso bat lortzeko saiakera burutuko dugu epe laburreko irabaziak lortu ordez langileak kontratatu ditzaten, finantza-erakundeekin jarduera zientifikoak garatzeko beharrezko kreditua lortzen saiatuko gara, eta teknologiararen eta ikerketaren esparruko eragileekin ezagutzaren transferentzia errazteko ahaleginak egingo ditugu. Itun horren arabera, finantziario publikoa duten proiektuek derrigorrez ingurumen-jasangarritasunari eta jasangarritasun ekonomiko eta sozialari buruzko ikerketa bat erantsi beharko dute, Global Reporting Initiative erakundearen irizpideei eta enpresen gizarte-erantzukizunaren klausulei jarraiki.

417. **Alde egin duen talentu zientifikoaren itzulera suspertuko dugu.** Horretarako, uste dugu beharrezkoa dela balio erantsi handia duten sektoreetan enplegua sortzeko politikak abiaraztea, zientzialari emigrante eta atzerriko ikerlarientzat ikerketa-proiektuetako lan-eskaintzak sustatzea, mugikortasuna eta nazioartekotzea bultzatzea, transferentzia teknologikoan eta berrikuntza sozialean diharduten enpresak diruz laguntzea, eta zientziaren, teknologiararen eta transferentzia teknologikoaren alorreko enpresak eta proiektuak sortzeko laguntzak argitaratzea, emigratutako ikerlarientzako lan-eskaintzak hornituko dituztenak.

7.1.5. Lanbide-heziketa (LH) eta bizitza osoko irakaskuntza

Joan den legealdian lanbide-heziketaren euskal lege berria onartu zen, eta gure legebiltzar-taldearen aurkako botoa izan zuen, izan ere, araudi zaharkitu, lauso eta nahasi bat baita bere planteamenduan, eta ez baitie euskal ekonomiaren etorkizuneko sektore estrategikoei erantzuten. Gainera, itunpeko sarearen presentzia iraunarazi eta handitu nahi du, eta ez du lanbide-heziketaren garapen eta kontrolean gizarte-eragileen parte-hartzea bermatzen. Ildo horretatik, honako hauek lirateke gure proposamenak:

418. Lanbide-heziketaren legea aldatzea, lanbide-heziketa publikoa hezkuntza-sistemaren eta lanbide-heziketaren ardatza izan dadin, eta itunpeko sare pribatuaren hedapena geldiaraztea.

419. LH duala burutzean ikasleen eskubideak babestuko ditugu eta lan-baldintzak kontrolatuko ditugu, ikasleek gero ere lanean jarraitzeko aukera sustatzen dugun bitartean.

420. Arau-esparru koherente bat bermatuko dugu, non LH duala ez den eskulan merkea lortzeko makina bat bihurtuko. **Egungo desregulazioa lehengoratu dugu eta LH dualean gazteak esplotatzea saihestuko dugu,** benetako trebakuntza eta lan-munduan sartzeari bultzatuko dituela ziurtatzeko.

421. LHren kudeaketa demokratikoa bermatuko dugu gizarte-eragileen parte-hartze loteslearen bidez.

422. LHren finantziarioa handiko dugu. Erakundeen eta beharrezko baliabideen artean koordinazio handiagoa sustatuko dugu, egungo inbertsioa ez baita nahikoa.

423. LHren eta sektore sozial desberdinen arteko lankidetzari indartuko dugu, LHko zentroetan sortutako berrikuntza xede sozialak eta garapen ekonomikoa aintzat hartuz aplikatuko dela bermatzeko.

424. Helduen hezkuntza (HHE) eta hizkuntza eskola ofizialak indartuko ditugu.

425. Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak bultzatuko ditugu, gaineko ereduen osagarri gisa.

426. Sindikatuek LH dualeko planen lanketa-prozesuan parte hartuko dutela ziurtatuko dugu, trebakuntzaren kalitatea eta babes sozial eta laboreko eskubideak bermatzeko.

7.2. Osasunerako eskubidea eta kalitatezko osasun-arreta

Osasuna eskubide bat dela eta politika publiko guztiak zeharkatzen dituela uste dugu: enplegua, etxebizitza, elikadura, azpiegiturak, hezkuntza, justizia, haurtzarora, eta abar. Osasuna eskubide gisa eta osasungintza haren faktore eragile gisa hartzen dituen ikuspegi